ONE-CLUB WOMAN 2026

MO MARLEY





MO MARLEY
EVERTON FC

One-Club Woman 2026

KLIKATU
CLICK

EUSKERA	5
CASTELLANO	11
ENGLISH	17



MO MARLEY, EVERTON FCREN IKUR ETA AITZINDARIA, ONE-CLUB WOMAN 2026

JOKALARI ETA ENTRENATZAILE INGELESA BI HAMARKADA LUZEZ EGON DA ERAKUNDEARI LOTUTA.

Hamalau urtez defendatu zuen talde toffeearen elastikoa, eta erretiroa hartu ondoren beste hamar denboraldiz zuzendu zuen Everton FC. Britainiar Inperioko Ordenako kide izendatua, funtsezko figura izan da emakumezkoen futbolaren garapenean Ingalaterran, bai jokalari eta entrenatzaile gisa, bai bere herrialdeko federazioan teknikari lanetan jardun duelako.

Evertonen jokalari izan zen hamalau denboraldietan, Marleyk Premier League txapelketa irabazi zuen 1998an eta FA Cupa 1989an. Erdiko atzelari sendo gisa ospe handia eskuratu zuen, eta horri esker 41 aldiz jantzi zuen Ingalaterrako selekzioaren elastikoa. Horiek horrela, Mo Marley Athletic Cluben One-Club Woman Award saria jaso duten futbolari ospetsuen zerrendara batu da: Malin Moström (Umeå, 2019), Pia Wunderlich (1. FFC Frankfurt, 2020), Jennifer Zietz (FFC Turbine Potsdam, 2022), Mati





Martínez (Fundación Albacete, 2023), Maria Gstöttner (USV Neulengbach, 2024) eta Joelle Murray (Hibernian FC, 2025).

Maureen Angela “Mo” Marley 1967ko urtarrilaren 31n jaio zen Liverpoolen. Hiria munduko futbolaren epizentroetako bat izan zen 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, bai Everton FCren bai Liverpool FCren arrakastei esker. Testuinguru horretan hazi zen Marley, eta haurra zela Connah’s Quay taldean hasi zen aurrelari gisa jokatzen. Hala ere, ikasketetan arreta jartzea erabaki eta botak albo batera utzi zituen. Nerabezaroan zelaietara itzuli zen aldi batez, eta denboraldi batez jokatu zuen Runcorn Ladies taldean, Liverpool inguruko eskualde-ligetako talde batean, berriro futbola uzteko erabakia hartu aurretik.

EVERTON FCREN ONE-CLUB WOMAN, TALDEAREN IZEN GUZTIEKIN

Futbolarekiko grinak bizirik jarraitzen zuen haren baitan, eta 1988an bere bizitza erabat aldatuko zuen proiektuan sartu zen. Marley Leasowe Pacific taldeko kide egin zen; pub batean sortutako senior taldea zen, eta zazpi urte geroago Everton Ladies izena hartu zuen. Ondoren, behin betiko, Everton FC Women bihurtu zen. Egitura horretan egin zuen senior mailako ibilbide osoa, eta benetako ikur bihurtu zen klubaren barruan. Hainbesteraino, non Goodison Park-ko

areto batek haren izena daraman, eta zale talde batzuek eskatu duten klubeko lehen estatua duen emakumea Marley bera izatea.

Lehen urte haietan, futbola batez ere aisialdiko jarduera zen harentzat. 1989ko FA Kopa irabazi zuen Old Trafforden Friends of Fulham taldearen aurka, eta jarduera hori lanaldi partzialeko lanarekin uztartzen zuen. Baina FA Women's Premier League txapelketara iritsi eta Ingalaterrako selekzioaren deia jaso zuenean, futbola bere bizitza profesionalaren ardatz nagusi bihurtu zen. Defentsalari zentzudun, adimentsu eta lidergo handikoa zela nabarmendu zen, eta haren gidaritzapean Everton ligako txapeldun izan zen 1998an. «Ez nintzen distira handiko jokalaria; nire mugak zeintzuk ziren banekien. Baina nire lanerako jarrera ez zen inoiz aldatu, ez klubean, ezta selekzioan ere», adierazi zion Ingalaterrako federazioaren webguneari. Lanerako jarrera eta konpromiso horri esker, bere herrialdeko futbolaren errespetua irabazi zuen.

BELARRETIK EVERTON FCREN AULKIRA

Futbolari gisa azken urteak egiten ari zela, entrenatzaile izateko bidea prestatzen hasi zen Marley. Hala, Merseysideko neska eta gazteen futbol-garapenerako arduradun izendatu zuten, eta 2001eko azaroan, oraindik Everton FCko jokalaria zela, Ingalaterrako 19 urtez azpiko selekzioko hautatzaile kargua hartu zuen. Hilabete batzuk geroago, 2002ko udan, taldeko futbolari gisa hamalau urte eman ondoren, botak zintzilikatu eta txandala jantzi zuen, Everton FC zuzentzeko. Hamar urtez egon zen karguan, eta epe horretan FA Kopa eta Ligako Kopa irabazi zituen; Premier League titulua, berriz, oso gertu izan zuen.

Ingalaterran UEFA Pro Lizentzia eskuratu zuen bigarren emakumea izan zen, eta haren agindupean Ingalaterrako 19 urtez azpiko selekzioa Europako txapeldun izan zen 2009an. 2012ko udazkenean Everton FCko aulkia utzi zuen, federazioan zuen lanean buru-belarri aritzeko, eta han beste bi Europako txapeldunorde izatea lortu zuen.

2017an Ingalaterrako selekzio absolutuko behin-behineko hautatzaile izan zen, eta geroago 23 urtez azpiko selekzioaren ardura hartu zuen. Gaur egun ere futbolari lotuta jarraitzen du, etorkizuneko emakume entrenatzaileen belaunaldiari aholkularitza emanez FIFArekin, League Managers Association erakundearekin eta Ingalaterrako Futbol Federazioarekin elkarlanean.







MO MARLEY,

PIONERA Y EMBLEMA DEL EVERTON FC, ONE-CLUB WOMAN 2026

LA INGLESA FUE JUGADORA Y ENTRENADORA DE LA ENTIDAD DURANTE CASI UN CUARTO DE SIGLO.

Defendió durante 14 años la camiseta de la estructura toffee y, tras su retirada, dirigió al Everton FC durante otras 10 campañas. Nombrada integrante de la Orden del Imperio Británico ha sido una figura clave en el desarrollo del fútbol femenino en Inglaterra también de su papel como técnica de la federación de su país.

Durante sus 14 campañas como jugadora del Everton, Marley ganó Premier League en 1998 y la FA Cup en 1989 y logró una gran reputación como central que le valió para ser internacional en 41 ocasiones. La zaguera inglesa se une así a la prestigiosa lista formada por Malin Moström (Umea, 2019), Pia Wunderlich (1.FFC Frankfurt, 2020), Jennifer Zietz (FCC Turbine, 2022), Mati Martínez (Fundación Albacete, 2023) y Maria





Gstöttner (USV Neulengbach, 2024) y Joelle Murray (Hibernian FC) como futbolistas distinguidas con el One-Club Woman Award del Athletic Club.

Maureen Angela “Mo” Marley nació el 31 de enero en 1967 en Liverpool, una ciudad que durante las décadas de los setenta y ochenta fue uno de los epicentros del fútbol mundial gracias a los éxitos tanto del Everton FC como del Liverpool FC. Marley creció en ese contexto y siendo una niña comenzó a jugar como delantera en el Connash Quay, pero decidió centrarse en sus estudios. Durante la adolescencia regresó brevemente a los terrenos de juego y militó una campaña en el Runcorn Ladies, escuadra de las ligas regionales de Liverpool antes de retirarse nuevamente.

OCW DEL EVERTON FC CON SUS DIFERENTES ACEPCIONES

La pasión por el fútbol seguía dentro de ella, por lo que en 1988 se enroló en el proyecto que cambiaría su vida. Marley se integró en el Leasowe Pacific, un equipo senior surgido en un pub y que siete años más tarde pasaría a denominarse Everton Ladies y que, posteriormente, adoptaría el nombre de Everton FC Women de forma definitiva. Una estructura en la que pasó toda su carrera senior y en la que se convirtió en una auténtica institución, tanto que una sala del Goodi-

son Park lleva su nombre y grupos de aficionados de los toffees han solicitado que la primera mujer del club en contar con una estatua sea la propia Marley.

En sus primeros años, en los que ganó la FA Cup de 1989 en Old Trafford frente al Friends of Fulham, el fútbol fue principalmente una actividad lúdica que compaginaba con su trabajo a tiempo parcial, pero una vez en la FA Women's Premier League y tras recibir la convocatoria de las lionesses su pasión se convirtió en el eje profesional de su vida. Destacada como una defensa sobria, inteligente y con grandes dotes de liderazgo, comandó al Everton hacia la conquista del título de Liga en 1998: "No era una jugadora con mucha chispa, conocía mis limitaciones. Pero mi ritmo de trabajo nunca cambió, ni en el club ni en la selección" declaró a la web de la federación inglesa. Unos estándares que le valieron el respeto del todo el mundo del fútbol en su país.

DEL CÉSPED AL BANQUILLO DEL EVERTON FC

Durante su última etapa como futbolista, Marley fue preparando su salto a los banquillos. Así fue nombrada responsable para el desarrollo futbolístico de las niñas y jóvenes de Merseyside y en noviembre de 2001, cuando todavía era jugadora del Everton FC, asumió el cargo de seleccionadora sub19 de Inglaterra. Meses después, el verano de 2002, tras





14 años como futbolista del equipo, colgó las botas y se enfundó el chándal para dirigir al Everton FC. Estuvo 10 años en el cargo en los que logró los títulos de la FA Cup y la Copa de la Liga, quedándose a las puertas de ganar la Premier League.

Fue la segunda mujer en sacarse la Licencia UEFA Pro en Inglaterra y bajo su dirección la selección sub-19 se proclamó campeona continental en 2009. En otoño de 2012 dejó el banquillo del Everton FC para centrarse en su trabajo en la federación, obteniendo dos nuevos subcampeonatos de Europa.

En 2017, ocupó el cargo de seleccionadora interina de la selección absoluta y, posteriormente, fue nombrada seleccionadora de la selección sub-23. Mo sigue vinculada al mundo del fútbol, asesorando a la próxima generación de entrenadoras en colaboración con la FIFA, la Asociación de Entrenadores de la Liga y la Federación de Fútbol.



MO MARLEY,

EVERTON FC ICON AND PIONEER MO MARLEY IS THE 2026 ONE-CLUB WOMAN

THE ENGLISH FOOTBALLER WAS A PLAYER AND COACH AT THE CLUB FOR ALMOST A QUARTER OF A CENTURY.

Maureen Angela “Mo” Marley played for Everton FC for 14 years and, after retiring, managed the Toffees for a further 10 seasons.

Appointed a Member of the Order of the British Empire, Marely has been a key figure in the development of women’s football in England both as a player and coach, spending many years working with the English football association.

During her time as an Everton player, Marley, a highly regarded centre-back and leader, won the League in 1998 and the FA Cup in 1989, in addition to earning 41 caps for her country.





The English defender joins a prestigious list of One-Club Woman award winners which includes: Malin Moström (Umeå, 2019), Pia Wunderlich (1.FFC Frankfurt, 2020), Jennifer Zietz (FCC Turbine, 2022), Mati Martínez (Fundación Albacete, 2023), Maria Gstöttner (USV Neulengbach, 2024) and Joelle Murray (Hibernian FC, 2025).

Mo was born on 31 January 1967 in Liverpool, a city which is one of the epicentres of world football thanks to the successes of both Everton FC and Liverpool FC.

A Scouser born and bred, Mo grew up in that environment and, as a young girl, began her youth career as a striker for Connah's Quay, before deciding to put football aside to focus on her studies. During her teenage years, she briefly returned to the pitch and turned out for Runcorn Ladies, a team in the Merseyside regional leagues, for one season, before retiring once again.

EVERTON FC PIONEER AND ONE-CLUB WOMAN

Marley's passion for football remained strong, so in 1988 she committed herself to the project that would change her life. She joined Leasowe Pacific, a senior team formed in a pub which, seven years later, would become Everton Ladies, before eventually being renamed Everton FC Women.

Mo spent her entire playing career at the same institution, becoming a true legend, so much so that a hospitality lounge at Goodison Park is named after her and groups of Toffees supporters have called for Marley to be the first woman in the club's history to have her own statue.

In Mo's early years, during which she won the 1989 FA Cup at Old Trafford against Friends of Fulham, she mainly balanced football with her part-time job, but once she joined the FA Women's Premier League and was called up to the Lionesses, her passion became the professional focus of her life.

Recognised as a level-headed, intelligent defender with great leadership qualities, Marley led Everton to the League title in 1998.

"I wasn't a particularly flamboyant player. I knew my limitations. But my work ethic never wavered, neither at club nor international level," she told the English Football Association's website. It is these standards that earned her the respect of the entire English footballing community.

FROM THE PITCH TO THE EVERTON FC DUGOUT

During the final stages of Marley's playing career, she began preparing for a move into management. She was appointed head of football development for girls and young women in Merseyside, and in November 2001, whilst





still playing for Everton FC, she took up the post of England Under-19 manager.

Months later, in the summer of 2002, after 14 years as a player for the club, Mo hung up her boots and donned the tracksuit to take charge of Everton FC. She spent 10 years in the role, during which time she won the FA Cup and the League Cup, in addition to coming within a whisker of winning the Premier League.

She was the second woman to obtain the UEFA Pro Licence in England and, under her leadership, the English Under-19s were crowned European champions in 2009.

In the autumn of 2012, she stepped down as the Everton FC manager to focus on her work with the FA, leading the team to two further European runner-up finishes. In 2017, she served as interim manager of the senior national team and was subsequently appointed manager of the Under-23s. Mo is still involved in the game mentoring the next generation of female coaches with FIFA, The League Managers Association and the Football Association



Athletic Club

2026/27

www.athletic-club.eus

Ibaigane, Alameda Mazarredo, 23. 48009 Bilbao